



Aitor Mendiluze «bertsotan egitera» doa igandeko bertsoaren olinpiadara

Christian Simelio Kataluniako kantu inprobisatzailea edo corrandista Mintzolan izango da, bihar, 19:00etatik aurrera munduko kantu inprobisatuen inguruko jardunaldietan [4-5](#)



TOLOSALDEKO hitza



Osteguna, 2013ko abenduaren 12a. 1. urtea. 41. zenbakia. www.ataria.info

EZKER ABERTZALEA: «HASERREA KALERA ATERATZEKO UNEA DA» [2](#)



LAB eta ELAk deitutako larunbateko manifestaziora joateko deia egin dute. i. r.

Jon Sarasua Idazlea

«Tolosaldeko euskararen egoera hartuko lukete askok»

‘Euskararen egoera eta etorkizuna Euskal Herrian eta Alegialdean’ hitzaldia emango du Alegian [7](#)



Tolosa - Bidasoa eskubaloia partida, gaur

Tolosa eta Bidasoa taldeek Euskal Kopako final laurdenetako partida jokatu dute gaur 20:00etan Usabal kiroldegian. TOLOSALDEKO ATARIAK, Jon Iraola, Jon Kaminos,

Asier Zubiria eta Iñigo Arratibelekin hitz egin du, partida aurretiko inpresioak zein diren jakiteko. Ilusio eta gogo handiz dira, eta irabazteko esperantzarekin ere bai. [6](#)



MERK&TO

RONDILLA, 10 - TOLOSA

Arraindegia
943
506
361

Okindegia
943
506
362

Erutadegia
943
506
363

Harategia
943
506
364



Itsas
OILARRA
5,95 €/Kg



Amuz arrantzatutako
LEGATZA
6,90 €/Kg



Esneko
ARKUMEA
9,96 €/Kg



Kilo bat erosita
BIGARRENA OPARI
Erretzeko
TXURRASKOA



Naranja
SAREA - 2 KG
0,99



ESKaintza
PLATANOA
0,99 €/Kg

Eskaintzaren balioarritasuna izakinek amaitu arteko izango da.

Tolosaldea

Gutunak

KALERATZEEN AURKA, GATAZKAN DAUDEN ENPRESETAKO LANGILEON BATASUNA!

Adunako Endaki, Zizurkilgo Marie Brizard eta Albizturko Antalis lantokiak itxi nahi dituzte eta langileak greba mugagabea dira. Anoetako Renault-eko langileak ere kalean gera daitezke, itxieragatik. Guztira, beste 131 familia langabeziaren zulo ilunean murgiltzeko arriskuan. Enpresa hauen jabeak diren multinazionalen helburua garbi dago zein den: irabazi maximoa langileak kale gorrian uztearen kontura. Honen aurrean, *Euskal Herria Sozialistak* babes osoa eman nahi die enpresa hauetako langileei eta antolatzen ari diren mobilizazioei, eta, bide batez, gure proposamenak egin borrokaren garaipenean laguntzeko.

EEEek, kaleratzeek eta enpresa itxierek jarraitu egiten dute. Euskal Herrian errealtate oso gogorra ikusten ari gara eta Tolosaldea ere ez da libratzen. Azken bost urteetan 1.600 lanpostu galdu dira Tolosaldean, eta ondorioz, 3.205 langabe daude gaur egun. Egoera honi aurre egiteko helburuarekin, ELA eta LAB sindikatuak manifestazio bateratu deitu dute larunbat honetarako, *Tolosaldeko enpleguaren alde langileok borrokan* leloa izango duena. Manifestazioa Tolosako Triangulotik abiatuko da 12:00etan. *Euskal Herria Sozialistak* bat egiten du manifestazio honekin eta herritarrei bertan parte hartzeko dei egiten die.

Honekin batera, gure iritziz beharrezkoa da Tolosaldean gatazkan dauden edo arazoak dituzten enpresetako borrokak koordinatzea eta bateratzea. Oso zaila da lanpostuak enpresaz enpresa defendatzea. Arazo berdinen aurrean mobilizazio bateratu eta koordinatuarekin langile-

on indarra biderkatu egiten da. Batasuna da Tolosaldeko langile eta hauen familien aurka antolatzen ari diren eraso guztiak atzera botatzeko modu onena. Kapitalisten beldur handiena, alde batetik, borroka bateratua eta, bestetik, langile klasearen antolakuntza handiena dira. Horregatik, pauso garrantzitsua litzateke Tolosaldean gatazkan dauden fabrika ezberdinetako borrokak eta gatazkak bateratzeko eta koordinatzeko lan egitea, eta erasoekin dauden enpresen koordinadora bat sortzea enpresa guztietako langileak sufritzen ari garen eraso berberei indar handiagoz aurre egiteko. Honekin batera, funtsezkoa da gure eskualdeko biztanleria borroka honetan inplikatzeko.

Beharrezkoa da lanpostu eta lan baldintza guztiak defendatzea. Zenbat eta atzera pauso gehiago egin, orduan eta eraso gehiago etortzen dira etorkizunean. Enpresek lana jaitsi dela esaten badute, sindikatuak honakoa defendatu behar dute: lan orduak jaitsiz lana banatu lan baldintzak eta soldatak ukitu gabe. Enpresek hori bideragarria ez dela edo fabrika ixtea beharrezkoa dela esaten jarraitzen badute, beharrezkoa da sindikatuak lanpostuak eta ekoizpenaren bideragarritasuna bermatzeko alternatiba bakarra defendatzea: enpresa desjabetu, publiko egin eta langileen kontrolpean jarri. Langileek kontrolatutako enpresa publikoekin lan baldintzak eta lanpostuak bermatu ahalko lirateke, eta enpresen irabaziak ez lirateke gutxi batzuentzat izango, etxebizitza, osasun eta hezkuntza publiko bezalako behar sozialak asetzeko baiziki.

Manu Odriozola, Euskal Herria Sozialistako kidea eta EEEen dagoen Manipulados del Araxesko langilea.



Tolosaldeko Ezker Abertzaleko kideak atzo eginiko agerraldian. I. TERRADILLOS

Alternatibak eraikitzeke unea dela dio Ezker Abertzaleak

Larunbaterako LABek eta ELAk deitu duten manifestazioarekin bat egin, eta bertara joateko deia egin du

ERREDAKZIOA TOLOSA

Egungo egoera sozioekonomikoa orokorrean, eta bereziki eskualdean azken asteetan ematen ari den hainbat lantegiren itxeko arriskua aintzat hartuta, Tolosaldeko Ezker Abertzaleak «haserreka kalera ateratzeko garaia» dela adierazi du, eta enpleguaren, eraldaketa sozialaren eta burujabetzaren alde mobilizatzea deitu du. Hala, larunbatean, hilak 14, Tolosako Triangulotik 12:00etan aterata LABek eta ELAk deitu duten manifestazioarekin bat eginez, bertan parte hartzea deitu ditu Tolosaldeko herritarrak.

Tolosaldeko Ezker Abertzaleak dioenez, «Madrilgo zein Gasteizko gobernuen erreformen harira, geroz eta okerrago banatzen da aberastasuna, eta gutxien duenak sufritzen ditu gehien egoera sozioekonomikoren ondorioak». Era berean, langabeziak gora egin duela «nabarmen» gogoratzen du: «industria sektoreko

lanpostuen galera ari gara ikusten azkenaldian; Hego Euskal Herrian 225.000 pertsona baino gehiago dago langabezian, eta Tolosaldean 3.200, eta enpleguaren kalitatea gero eta kaxkarragoa da».

«Pausoak ematen hasi gara»

Tolosaldeari erreparatuta, Endaki, Marie Brizard, Antalis eta Renault lantegiak itxeko arriskuan daudela gogoratu dute, eta ondorioz, hamarnaka gizon-emakume lanpostua galtzekotan. Ezker Abertzalearen ustetan, «etengabeko galera horri alternatibarik eskaintzen ez dion bide bakarra orain arte jarraitutakoa da eta alternatibarik ez dagoela sinetsarazi nahi digute, dagoen alternatiba bakarra soberanista delako, ezkertiarra delako, egungo hegemonia ekonomikoaren interesen kontra doalako».

Ildo horretatik, Euskal Herrian eta Tolosaldean herritar eta eragile nahikoa badagoela alternatiba horren bidean urrats praktikoak emateko dio Ezker Abertzaleak, eta dagoeneko, zenbait urrats emanak dituztela: «Apaltasunez esan dezakegu, Gipuzkoan eta Tolosaldean eredu injustu hau aldatzeko pausuak ematen hasi garela: udal,

mankomunitate eta Foru Aldundien aurrekontuak gizarte zerbitzuan eta enplegua bideratuta daude eta ez makroproiektuetara... Lanean ari gara, eta egoera oso konplikatu izan arren elkartasunetik, ekintzailetasunetik eta konpromisotik buelta eman diezaiokegu». Bere konpromisoa enplegua, babes soziala eta zerbitzu publikoen defentsan bere onena ematea dela dio, baina ohar-tarazten du burujabetza ezinbestekoa dela ekimenak «eraginkorrak» izateko: «Gure herria aske ez den bitartean, Madrilen erabaki atzerakoen pisuak gure eragiteko gaitasuna asko murrizten du».

Hala, «enpleguaren suntsiketarik, lan baldintzen kaxkartzerik, Madrilen eta kapitalaren menpeko politika ekonomikorik» ez duela onartzen dio Tolosaldeko Ezker Abertzaleak, eta alternatibak eraikitzen inplikatzera, kooperatibismoaren balorerik onenak, elkartasuna eta ekintzailetasuna praktikara eramatera deitu ditu herritarrak. Era berean, tokikotasunari garrantzia ematea eskatzen die, «gure baserri-tarrak, dendariak eta enpresa txikiak babestuz, bertako produktuak kontsumituz eta gure lurra eta ehun industriala zainduz».

www.inmosalbide.com

SALBIDE
Higiezin zerbitzuak

Aia. Urdaneta Auzoan. 120m²-ko borda (4 gelako etxebizitza) eta 17.500m²-ko terrenoa. Oso polita. Prezio onean **240.405 euro!**

Zarautz. Azken Portu. 96m². 3 logela eta trastelekua. Oso egoera onean. 390.658 euro.

Zarautz. Vista Alegre. 87m². 3 logela, 2 bainugela, terraza (9m²). **282.476 euro!**

Zarautz. Alde zaharrean. Logela bateko etxebizitza. **150.253 euro!**

Zarautz. Herrikobara kalean. 2 logela eta igogailua. 200.000 euro.

Zarautz. Zelai Ondo. 3 logelako etxea eta trastelekua. Igogailuarekin. Erreforma behar du. **210.000 euro!**

Zarautz. Zentroan 2 logela eta trastelekua (14m²) kanpora ematen dutenak. 270.455 euro.

Zarautz. Zentroan. Emakumezkoen **ileapaindegia** alokatzen da.

Bergara. Lizaria kalean. **Garajeak** saltzen dira. **7.000 euro**-tik aurrera (BEZ barne).

Bizkaia kalea, 6 · 20800 Zarautz · Tel.: 943-01 07 00 · Mug.: 665-71 85 96



**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Iragarki
laburrak**

LAN BILA

Etxeko lanetarako:

Etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, esperientzia handiko emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Kotxea ere eskura dauka. Informazio gehiago edo edozein zalantza argitu behar izanez gero, bi telefono zenbaki daude eskuragarri: 943 696882 edota 606 521992



Etxea pertsonalizatuta janzteko aukera

Muñazabal altzariak dendak 40 urtetik gorako esperientzia du. Aita eta osabaren bidea jarraituz, Mikel Elduaien dekoratzailea arduratzen da Tolosako San Inazio kaleko 2. zenbakian dagoen Muñazabal altzari dendaz. Beste bi lankiderekin batera osatzen du lan taldea.

Etxe osoa hornitzeko aukera eskaintzen dute, sukaldetik hasi eta geletaraino. Estilo eta gustu guztietarako altzariak dituzte. Bi pisutan banatuta dute denda, eta lehen solairua txikia den arren, 400 metro karratuko altzari erakusketa du dendak. Mikel Elduaienek beldurrik gabe sartzeko gonbita egiten die bezeroei.

«Bezeroarekin egiten dugu lana. Zein estilo duen gustuko eta zein aurrekontu duen kontuan izan da», dio. Bezeroaren toki eta beharretara

egokitzen dakite: «Egongela baten kostua 5.000 eurokoa edota 1.000 eurokoa izan daiteke, eta ez da bakarrik prezioa erakustea, baizik eta bezeroak dakarren proiektua diseinatu egiten dut. Pertsonalizatutako eskaintza egiten dugu».

Altzari bereziak egiteko gaitasuna ere badute: «Zaila den edozein gauza egin egiten dugu. Sukaldeak, haurren gelak, horman sartutako armairuak,...etxe oso bat jantzi dezakegu eta gu arduratzen gara». Modernotik klasikora bitarteko altzariak dituzte, eta prezioak ere poltsiko guztietarako modukoak.

Urte amaiera bitarteko eskaintza
Sofa eta koltxoietan eskaintza bereziak dituzte, eta merkatuan dauden mota guztietakoak eros daitezke. Deskantsuari ematen dioten ga-


rrantziari lotuta, aukera oso zabala eskaintzen dute: «dendan hama-bost koltxoi ezberdin daude». Sofetan ere aukera zabala dute, eta bereziki deskantsuari begirakoak dira, baita, adinekoentzat egokiak direnak ere.

Gainerakoan, erakusketan dituzten altzarietako batzuk %20tik hasi eta %70era bitarteko deskontuak dituzte.

Muñazabal altzariak

Ordutegia. Astelehenetik ostiralera 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Larunbatetan 09:00etatik 13:00etara. Arratsalde, ordua hartuta.

Harremanetarako. 943 65 17 61 edo munazabal@munazabal.com



Bertsolaritza



Duela lau urte ere finaleko bertsolarien artean izan zen Aitor Mendiluze, eta igandean eskualdeko ordezkari bakarra izango da oholtzan. ATARIA

Zortzi burutik bakarra

Igandean amaituko da bertsoaren olinpiada, eta Aitor Mendiluze izango da eskualdeko ordezkari bakarra

ITZEA URKIZU

Joxe Agirrek Maialen Lujanbiori txapela jantzi zioneko argazkiak hamaika itzuli eman ditu 2009ko abenduaren 13 harrez geroztik. Lau urtean eraman du, heraniarrak, txapelak duen ohorea eta zama, eta hiru egun barru jokoa izango da berriz bertsoaren olinpiadako sari potoloa. Aitor Mendiluzek oholtzatik bizituko du, berriz ere, Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala, eta «bertsotan egitera» joango da, puntuei begiratu gabe.

Iruran bizi den andoaindarra bosgarrenez ari da aurten txapelketan, eta zale gehienen aurreikuspenekin bat eginda, lortu du finalerako txartela. Murgian hasi zuen

BECerantzako ibilbidea, eta puntuazio onekin gainditu ditu kanporaketak; bere buruarekiko egin duen balorazioa, ordeza, ez da guztiz ona izan, eta pasa den azaroaren 30ean Maule-Lextarren jokaturako azken saioan ez zen batere gustura geratu bere lanarekin.

«Egin nezakeenaren laurdenik ere egin ez dudaren sentsazioa daukat». Halaxe nabarmendu zuen Mendiluzek, Mauleko saioa amaitu bezain laster. Saio osoan «tiraka eta tiraka» aritu eta deseroso ikusi zuen bere burua, baina txapela janzteko aukerak izango dituzten zortzi buru horien artean izatea lortu zuen: «Saioarekin ez nago konforme, baina ezin kexatu sailkapena ikusita».

14.000 ikus-entzuleren aurrean

kantatuz, kanporaketetako arantza kentzeko helburuz joango da Mendiluze BECera: «Ez puntu eta ez ezer, bertsoan egitera joango naiz. Uste dut bertso-eskolan egin dudana».

“**Faborito izateak badu subkontzientean nahigabeko eragina»**

AMAIAGIRRE • BERTSOLARIA

ren erdirik ere ez dudala oholtzan egin, eta hori baino gehiago egin behar dudala, besterik gabe».

Gazteenen lanari begira

Amaia Agirrek eta Jexuxmari Irazuk ere zuzenean jarraituko dute Bertsolari Txapelketa Nagusia.

«Sekula baino lasaiago» hartu du 2013ko txapelketa, Agirrek: «Senti-

mentuz ere urruti samar nabaritu dut txapelketa, eta inoiz baino lasaiago amaitu dut. Erlatibizatzen ikasi dudana urtea izan da hau».

Besteak beste, BECera lanera joango da billabonatarra, baina pronostikoak egitera ausartu da. Bate-tik, Beñat Gaztelumendi finalean sartzeak baino gehiago harritu du Jon Maia ez sartzeak: «Orain dela hiru hilabete Gaztelumendi zortzikotea osatzeko hautagai gisa ikusten nuen, lan izugarria egiten ari baita. Eta izugarri pozten naiz, belaunaldi berri baten ordezkaria izango delako».

Bertsozaleen ahotan Amets Arza-llus eta Maialen Lujanbioren izenak dabilzala aipatzean, berriz, honakoa dio Agirrek: «Bertsozaleek gehien entzuten dituztenak dira eta egia da sekulako mailan dabilzala, baina nik Igor Elortza ere oso-oso ondo ikusi nuen Tolosako saioan, eta Unai Iturriagak ere badaki ber-

tsotan. Halaber, Sustrai Colinak beti egiten du final ona, hazi egiten da halako saioetan».

Finala egun batean jokatzeko den saioa izanagatik ere, batzuek abantaila txiki hori badutela uste du

“**Txapelarako hiruzpalau faborito ikusi beharko genituzke»**

JEXUXMARI IRAZU • BERTSOLARIA

Amaia Agirrek: «Egia ezin dugu ukatu, eta faborito izateak ere badu subkontzientean nahigabeko pisu bat». Gauzak horrela, gazteenari «gozatze moduko saioa» egitea opa diola nabarmendu nahi izan du Amaia Agirrek: «Ez dut uste babestu beharra izango denik lehen aldia izanda ere, ez da atzera geratuko, ziur».

Hiruzpalau faborito

Sentipen «gazi-gozoak» ditu Jexuxmari Irazuk, txapelketan egin duen lanari begira jarritz gero. Txapelketa gogoz hartu zuela dio, eta prestatzeko denbora gorde duela: «Lan dezente egin dut, eta hiru saiotan kantatzeko aukera ere izan dut. Bitan oso ondo aritu nintzen, eta hirugarrenean egindakoarekin ere ezin kexatu. Baina atarian geratu naiz, eta horrek jarri dio gazi puntua egindako lanari».

Finalari dagokionez, Irazuk ere Gaztelumendiren jauzia azpimarratu nahi izan du: «Ez da erraza zortziko talde horretan sartzea, eta Unai Agirre eta Sarriegiren arteko berdinketa horrekin ikusi zen gauzak zein larri egoten diren».

Bukaeran zer gertatuko den ez dakien arren, «gehiegi arriskatzeko» dela iruditzen zaio larrauldarrari, bi faborito argi zehaztearena: «Bertso asko kantatzen dira, eta aurreikusi ezin daitezkeen hainbat faktore daude. Nik uste dut txapelarako hiruzpalau faborito behintzat ikusi beharko genituzkeela. Hori bai, ez harritu txapela buru berean geratuko balitz, eta ezta iparraldera edo Bizkaia joango balitz ere».



KALITATE HOBERENA, PREZIO ONEAN

ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera 9:30 / 13:00 - 16:30 / 20:00
Larunbata 10:00 / 13:00 - 17:00 / 19:00
LARUNBAT ARRATSALDETAN IREKITA



Gazte logelak, bikote logelak, aretoak, jangelak, sukaldeko mahaia, sofak.... Flex koltxoak...



Euskal Herria 37, behe • IBARRA • Tel: 943 53 63 24

Christian Simelio • Kataluniako kantu inprobisatzailea edo 'Corrandista'

«Beste planeta bateko zerbait iruditzen zait finala, harrigarria benetan»

Christian Simelio (Sabadell, Herrialde katalanak, 1983) Corrandista da, kantuak katalanez inprobisatzen ditu. Esan daiteke Herrialde Katalanetako bertsolaria dela, eta Mintzolak munduko kantu inprobisatuen inguruan antolatutako jardunaldietan parte hartuko du, bihar, 19:00etatik aurrera.

Hainbat urte daramatzazu kantu inprobisatuaren munduan, baina nola hasi zinen?

Nire herriko jaietan *Garrotins al Combat* deituriko lehiak antolatzen dituzte, eta *Garrotins* Sabadellen inprobisatzeko erabiltzen dugun melodia da. Ia beti lehia horiek festetan egiten diren arren, noizean behin tabernetan-eta abesten dugu. Hasiera batean, beraz, testuinguru horretan hasi nintzen, jai-giroan.

Ondoren, nolabait, formalizatu egin duzu jakintza hori?

Gerora, gaiak interes handiagoa piztu zidan, eta inprobisazioa beste herri batzuetan ere egiten zutela jakin nuen; katalanez inprobisatzeko beste melodia batzuk ere ezagutu nituen, gainera. Horrela, hara eta hona ibiltzen hasi nintzen informazioa eskuratzeko, eta Valentzian eta Mallorcan ere gauza bera egiten zutela ikusi nuen. Areago, bi leku horietan kantu inprobisatuaren mugimendua Katalunian baino indartsuagoa zela konturatu nintzen, eta hara ere bidaiatu nuen guztia ezagutzeko.

Orain zure egunerokoaren zati garrantzitsua da, beraz, kantu inprobisatua.

Bai. Gaur egun, hamar urtez bueltaka ibili ondoren, topaketa askotan parte hartzen dut, eta baita erakustaldietan ere.

Euskal Herriko bertsolaritza nola ezagutu zenuen gogoan al duzu?

Euskal bertsolaritza duela hainbat urte ezagutu nuen, izan ere, Euskal Herriatik kanpo ere ezaguna da, baita nazioartean ere; katalanezko kantu inprobisatuarekin ez da gauza bera gertatzen. Beraz, bertsolaritza egunkarietan-eta ikusten nuen, eta gaia ezaguna zitzaidan. Hori abiapuntu izanik, beti sentitzen nuen bertsolaritza sakonago ezagutzeko jakinmina, guk egiten genuen gauza bera zelako, euskaraz. Horrela, pasa den udan Euskal Herrira bidaiatu nuen, eta Karlos Aizpurua ezagutu nuen. Hark Bertsozale Elkartea erakutsi zidan, eta gauza asko kontatu zizkidan bertsolaritzaz. Bertso-saio pare batean ere izan nintzen, gainera.

Zein aspektuk bereizten ditu, zure

ustez, katalanezko kantu inprobisatua eta bertsolaritza?

Asko dira. Hasteko, Herrialde Katalanetan bat-batekoan aritzea ez dago hain profesionalizatua. Era berean, Euskal Herriko bertsolaritza bateratuagoa da Katalunian, Mallorcakoa nahiz Valentziakoa baino, adibidez. Kantu

elkarren arteko eraginagatik; baina hori Kataluniako erkidegoan gertatzen zaigu. Mallorca edo Valentziarekin alderatuta, hizkuntzak batzen gaitu, baina estiloak erabat desberdinak dira.

beste erkidegoetako kantaerak ezagutzeko eta horietan trebatzeko aukera izaten dugu. Horrenbestez, orain arte katalanezko kantu inprobisatuak nortasun herrikoiagoa izan du, baina azken urteotan jendea euskal bertsolaritzaren ezaugarriak hartzeko ahalegina egiten ari da, aipatu bezala, elkarteak sortzen ari direlako, eta hainbat txokotako inprobisatzaileekin lehiak antolatzen direlako. Dena den, oraindik asko falta zaio katalanezko bat-batekoari, bertsolaritza dagoen mailaraino iristeko.

Gizartean nolako harreman du?

Noski, ez da Euskal Herrian bezain ezaguna. Katalanezko kantu inprobisatua zer den ez dakienik ere bada. Euskal Herrian, gehiago edo gutxiago ezagututa ere, jende guztiak jakingo du bertsolaritza zer den. Herrialde Katalanetako bat-bateko kantuaren inguruan zera azpimarratuko nuke, ordea, herriz herri duen tradiziozko indar hori.

Eskualde bakoitzeko nortasunaren adierazle izan liteke, beraz, zuen bat-batekoa.

Bai, hala izan da historikoki, eta Kataluniakoa aldatzen ari den arren, Mallorcan eta Valentzian bereziki mantentzen dute berezko estilo hori.

Herrialde

Katalanetako inprobisatzaileok ere elkartuko zarete, noizean behin, ezta?

Bai, gure arteko kantuen desberdintasunez harago, urtean behin 12 orduz kantuan aritzeko topaketa moduko bat antolatzen dugu; 2014koa Sabadellen izango da, martxoaren 29an. Horrelako egitasmoiei esker,

1.000.000 lagunek baino gehiagok haien erosketen ordainketak 12 hilabetera arte eta interesik gabe* atzeratu ditzakete, Kutxabank Kreditu-txartelak erabilita.

*1.000 euroko eragiketa baterako adibideak:

3 hilabeterako ordainketa baterako, kudeaketa-komisioa 10 €; **UTB: %6,19**; hileroko kuota: 333,33 €; guztira zordundutakoa: 1.010 €.
6 hilabeterako ordainketa baterako, kudeaketa-komisioa 25 €; **UTB: %9,04**; hileroko kuota: 166,67 €; guztira zordundutakoa: 1.025 €.
9 hilabeterako ordainketa baterako, kudeaketa-komisioa 35 €; **UTB: %8,90**; hileroko kuota: 111,11 €; guztira zordundutakoa: 1.035 €.
12 hilabeterako ordainketa baterako, kudeaketa-komisioa 45 €; **UTB: %8,87**; hileroko kuota: 83,33 €; guztira zordundutakoa: 1.045 €.



Kutxabank, S.A., Kale Nagusia, 39-42, Bilbo, IFK: A95653077.
Bazkako Merkataritza Erregistratua, Inskribatuta. 5226 Tomoa, 10 Liburu, BI-58729 Orria, 1 Folioa, 1 Inskribazioa.

kutxa



Christian Simelio kantu inprobisatuko saio batean. ATARIA

Belaunaldi berriengana iristen al da katalanezko bat-batekoa?

Batez ere Mallorcan eta Katalunian autonomia erkidegoan. Azken hamarkadako kontua da, eta zenbait eskoletan txertatu da bat-bateko kantua. Horren ondorioz, gazte-txoen arteko lehiak antolatzen ere hasi gara, eta haurrei begira taillerak antolatzen ditugu. Maila gorenean, berriz, topaketak prestatzen ditugu, eta Albert Casals-ek doktorego tesia egin du kantu inprobisatua ardatz hartuta. Zehazki *La Corrandescola* izenburua du, eta corrandes deituriko kantu inprobisatuak haurrei erakusteko bideak aztertuta ditu.

Igandean BECen izango zara. Jakingo duzu Euskal Herrian badela eredu horren aurka dagoen korronte bat. Zuri zer iruditzen zaizu txapelketa?

Beste planeta bateko zerbait iruditzen zait finala, harrigarria benetan. Maila pertsonalean hitz eginda, nik gustuko dut bertsolaritza horrela profesionalizatzea eta hain handi bilakatzea. Horrek bizirik mantentzea dakarkio bertsolaritzari, eta oso indartsu, gainera. Nik nahiko nuke, noizbait, Herrialde Katalanetako bat-batekoa Euskal Herrikoaren antzekoa izatea, eredu bat iruditzen zait. Egiari zor, ordea, hemen bada gauza bera pentsatzen ez duen jendea ere; ohitura herrikoi bat izaten jarraitzea defendatzen dute, ez hain profesionalizatua. Talka hori bada, beraz.

Final nagusira zein aurreikuspenekin joango zara?

Grinari eutsiz joango naiz eta, era berean, pozik, oso gogotsu; benetan hunkigarria izango dela uste dut. Eta Herrialde Katalanetara bueltatzen naizenean, hemen ikusitakoa han erabilgarri suertatuko zaidala uste dut, aurrerapausoak emateko. Egia esan, zehazki ez dakit zer aurkituko dudan BECen, gurearengandik oso desberdina delako. Baina badaikit oso esperientzia baliagarria izango dela, behinik behin, niretzat. Gainera, ilusio handiz nago bihar Mintzolan katalanezko erakustaldia egiteko aukera izango dugulako.

Kirola

«Zaila bai, ezinezkoa ez»

Tolosa CF eskubaloia taldeak Bidasoa Irunen aurka jokatu du gaur, 20:00etan Usabal Kiroldegian. Lehen mailako taldea da irundarra, eta amets bat betetzea dela diote jokalariek. Gogotsu eta partida txukun bat egiteko esperantzarekin daude



Jon Iraola, Jon Kaminos, Asier Zubiria eta Iñigo Arratibel, hurrenez hurren. Amets bat beteko dute gaur. JULEN TELLERIA

J. TELLERIA/M. IRAOLA TOLOSA

Zirrara berezia piztu du herrian gaur 20:00etan Tolosak eta Bidasoak elkarren aurka jokatu duten Kopako partidak. Ilusio handia dute jokalariek, beti jarraitu izan duten taldearen aurka arituko baitira. Ez da ez edonolako aurkaria. Europako Txapelaldun izandakoak dira irundarrak, nahiz eta orain ezer gutxi gertatzen den talde hartatik. Arazo ekonomikoak medio, bigarren mailara jaitsi eta taldea berregituratu behar izan

zuten, pasa den urtean berriro ere lehen mailara igotzea lortu zuten arte. Zaila izango dute aurkaria menderatzea, baina «ezinezkorik ez da».

Ideia horrekin daude Jon Kaminos, Jon Iraola, Asier Zubiria eta Iñigo Arratibel jokalaria. Baita gainontzekoak ere. «Taldea gogo handiz dago, beti bezala, dena emateko prest», azaldu dute. Izan ere, beraientzat «oso berezia» izango den zerbait da.

Orain artean, Bidasoa jarraitu izan dutela azaldu dute. Pasa den urtean, iguera jokatu zueneko azken parti-

dan izan ziren taldeko hainbat kide. Aurten ere izan dira Bartzelonaren aurka jokatu zuenean. «Ilusio handia daukagu, Euskal Herrian ez baitago maila honetako beste talderik. Gainera, partida ofiziala da».

Hala ere, teoriarik, irundarrak talde indartsuagoa diren arren, tolosarrek badute ezustekoa emateko esperantza. «Partida perfektua egin beharra dago, baina zertxobait erlaxatzen badira, ez digu erraz utziko. Ez daukagu beldurrik, ez baitugu galtzekorik». Irabaziz gero, aldiz, «kristorena» izango

litzatekeela diote. Horretarako jendearen babesa ere garrantzitsua izango dela diote. «Jende asko espero dugu, baina ez daitezela ikustera soilik etorri, gogor anima dezatela ere bai». Giro paregabea espero da Usabalen, txaranga eta guzti.

Eskubaloia hedatzen

Tolosak lan eskerga egin du azken urteotan, herrian eta eskualdean kirol hau hedatzeko. «Bide onetik» doazela diote. Ikusi besterik ez da harrobiko taldeetan izaten ari diren gorakada: «Alebin, infantil eta jubenil mailan taldeak dauzkagu. Alebinetan esaterako, lehengo urtean zazpi ume zeuden eta aurten 19. Nesken taldea ere badugu». Urtero, ume horiek mantendu eta talde gehiago sortzea da Tolosaren helburu nagusia.

Kirol arloan bakarrik ez, zaletuen artean ere eskubaloia modan jartzen ari da. «Duela bizpahiru urte ez zen eskubaloia existitzen Tolosan. Orain ia 300 pertsona etortzen dira partidak ikustera. Kanpoko partidetara ere etortzen da jendea gurekin autobusean». Gaurkoarekin, jende gehiago «harrapatu» nahi dute, hurrengoan 300 beharrean, 400 -edo gehiago- izan daitezela. «Gazte jende asko etortzen da. Atsedendietan, kantxara ateratzen dira jokatzera. Lehen hori ez zen gertatzen, eta ona da».

Gainera, pasa den urtean iguera bikoitza lortu zuen. Bigarren Nazional



mailan jokatu behar zuen, baina Lehen Nazional mailako organigrama aldatu zen, eta plaza bat eskaini zieten. «Hasieran uste genuen astakeria bat izango zela. Ikaratuta geunden, baina guztiz kontrakoa izaten ari da». Ligan seigarren dira, eta bigarrena bi puntura dute. «Hamalau puntu dauzkagu, eta denboraldi osoan hamar pilotzea aurreikusten genuen. Beraz, oso pozik gaude».

Taldean duten giroak zerikusi handia du emaitza horietan. «Ezin da hobe izan. Entrenatzera eta partidak jokatzera gogoz joaten gara. Larunbat askotan afariak egiten ditugu elkarrekin. Eta horrez gain bideoa eta abestia egin ditugu. Ederki pasatzen dugu denok batera».

Nola ikusten dute Tolosa Irunen?

Tolosan bakarrik ez, kanpotik ere baloratzen da zuzendaritzak eskubaloiarengatik egindako lana. Bidasoaren jarduna gertutik jarraitzen duten bi kazetariren iritzia bildu du Tolosaldeko Atariak. Biek ala biek, talde tolosararen proiektuaren sendotasuna azpimarratu dute: «Gipuzkoan azken aldian progresio gehien izan duten taldeen artean dago. Ez litzateke arraroa izango, Zilarrezko Ohorezko Mailan ikustea bizpahiru urtetan. Gainera, nabarmentzekoa da harrobiarekin egiten ari den lana, hori baita bai eskubaloia jorratu behar duen bidea» dio Jurdan Arretxe Noticias de Gipuzkoako kazetariak. Iñaki de Mujika, Onda Vascako kazetariak, berriz, Tolosako kasua «oasi» bat dela adierazi du: «Gaur egun bizirik irauten duen proiektu orok errespetu eta miresmen osoa merezi du. Errazena bere horretan uztea litzatekeelako. Eskubaloia kirol bezala basamortu bat da, eta Tolosa, basamortu horren barnean, oasi bat».

Irudia Tolosa



Iker Karrerak jaso du 2013ko kirol merituari saria

Kirol talde eta eragileen arteko bozketaren ondoren, Iker Karrera mendi lasterkaria hautatu dute Tolosako 2013ko kirol merituari saria jasotzeko. Beste sari nagusi hauek banatu dituzte ekitaldian: kirolari eskainita-

ko laguntzagatik, Arsenal elkarteari eta Aurrera elkarteari; berdintasunaren saria, TAKE elkarteari, nesken parte hartzearen gorakadagatik; kirol portaera eredu-garriari, Tolosako emakume nagusien pilota taldeari;

eta kirolean egindako ibilbideagatik, TAKE elkarteari. Leidorren egindako ekitaldian urteko kirolari aipagarrienak saritu dituzte (eskuineko irudian) eta beste hainbat kirolariri diplomak banatu zaizkie. I.G.L.



Alegiako Udazken
Kulturalaren azken
ekitaldia izango da
astelehenean

Jon Sarasua • Idazlea

«Euskarak badu nondik arnasa hartu eta nondik arnasa eman»

IGOR AGIRRE ALEGIA

Euskararen egoera eta etorkizuna Euskal Herrian eta Alegialdean izenburupean eskainiko dute hitzaldia datorren astelehenean Jon Sarasua (Aretxabaleta, 1966) eta Xabier Bengoetxea tolosarrak. Kultur etxean egingo dute hizkuntzaren inguruko gogoeta arratsaldeko 18:00etan.

Urte honetako irailean publikatu du bere azken liburua aretxabaltarrak, *Hiztunpolisa*. Liburuan dauden hainbat ideien inguruan mintzatuko da datorren astean.

Zeri buruz mintzatuko zara hitzaldian?

Niri Hiztunpolisaren inguruan hitz egiteko eskatu zidaten. Hortik abiatuta, euskararen egoera eta norabidea aztertuko dugu, ez euskal herriatik begiratuta, baizik eta tokian tokiko guneetatik. Ondoren, gaia herrira jaitsiko dugu.

Liburuaren sarreran aipatzen duzu eztabaida pizteko egindako hitzaldien tonua dutela liburuaren zati batzuek, asteleheneko hitzaldira ere eztabaida sortzeko asmoarekin al zatotz?

Helburua azkenean ideia batzuk partekatzea da, hortik aurrera nire aldartea ez da probokatzaila. Nire asmoa zalantza eta begiratu batzuk mahai gainean jartzea besterik ez da. Eztabaida baino gehiago nahiago dut elkarrizketa sortzea eta hortik aurrera posizio ezberdinen eztabaida sortzen bada, primeran.

Gaur egun, zein norabidetan dagoela euskara esango zenuke?

Iruditzen zait erantzuna oso konplexua dela. Erantzun oso sinplistik ematen ohituak gaude gai honen inguruan, uste handiak eduki dituen hamarraldi batetik gatoz eta iruditzen zait gero eta gehiago ari garela konturatzen edozein gizarte aldaketaren konplexutasunaz. Gainera, uste dut, euskararen egoeraren in-

guruan ezin dugula sinplifikatu, paradoxa bat barruan daukan egoera bat da eta. Alde batetik, asko aurreratu da eta hori denari balio eman behar zaio ondo egin diren gauzetatik ikasi eta jarraitzeko. Beste aldetik, desafio berrien aurrean gaude eta egoera ez da pozik eta lasai egoteko modukoa. Uste dut konplexutasun hori gestionatzen ikasi beharrean gaudela

“**Oso erantzun sinplistik ematen ohituak gaude gai honen inguruan»**

2013ko irailean publikatu duzu zure azken liburua, *Hiztunpolisa*.

Bai, liburuak bi alde ditu. Batetik, oinarri batzuk agertzen dira euskararen eta euskaltzetasunaren etorkizunaz pentsatzeko. Beste zazpi kapituluak, berriz gogoeta organikoak dira, hau da, organoentzat pentsatuak. Hezkuntzari begira, euskararen gizarte erakundeen antolakuntzari begira, hedabideei begira eta kulturentzari begira egindako segida bat da. Debaterako materiala izan nahi du *Hiztunpolisak*.

Zein egoeratan dago momentu honetan euskaltasuna?

Asko sinplifikatuz, gutxienez bost hamarralditan aldapa igoera gogor bat egin berri eta aldapa igo izanaren arnas estuarekin. Aldapa bukatu eta tontorra zetorrela uste genuenean, tontorreko lautada beharrean beste malda bat daukagula ohartzeko puntuan gaudela esango nuke.



Jon Sarasua, irakasle den HUHEZI fakultatean. JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS

Zertan egin du huts orain arte? Eta asmatu?

Trantsizio inguruan egon zen une ireki hori beharbada hobeto aprobeztatu zitekeen ilusio eta kontsentsu gehiagorekin. Kritikoak eta autokritikoak izateko moduan gara, atzera begiratuta, uste dut, euskaldunok ezin dugula pozik egon politikari dagokionean.

Ondo berriz, gauza askotan ibili garela esango nuke. Herri ekimenetan oinarrituta hizkuntzarentzat azpiegiturak sortzen erreferenteetako bat gara mundu mailan. Argi dago horko estrategia batzuk ondo funtzionatu dutela eta goraldi nabarmen bat egin dugula azken hamarkadetan.

Bi indar abertzaleek euskararen inguruan hartu ditzaketen erabakietan adostasunak egoteak bi-dea erraztuko luke?

Zalantzarik gabe. Dibergentzia politikoak zilegi izan daitezke baina ez dago irtenbiderik hau bezalako gaietan adostasun batera iritsi ezik. Uste dut oso beharrezkoa dela euskararen mugimenduak diskurtso autonomo bat garatzea.

Esaldi honekin amaitzen duzu *Hiztunpolisa*: «Badu nondik arnasa hartu euskararen tentsio-nekeak. Badu nori arnasa eman ere». Zenen inguruan ari zara?

Iruditzen zait euskararen amets hau ez dela amets isolatua, sakonean korapilo unibertsal bati lotua dagoela baizik. Batetik, guk egiten duguna ez da isolatua. Bestetik, guk egiten duguna ez da indiferentea munduko beste prozesu baterako. Euskarak badu nondik arnasa hartu eta nori arnasa eman.

Tolosaldean zein egoeratan dagoela euskara esango zenuke?

Tolosaldeko egoera hartuko lukete beste eskualde askok Euskal Herrian. Tolosaldeko egoerak indarguneak badituela uste dut. Inguruko erabilera eta dinamika batzuen berri jakin dut eta uste dut oso interesgarriak direla. Hain zuzen ere, gauza hauen inguruan idatzi eta ideiak antolatzen ditugunok, gauzak ondo egiten diren lekuetatik dugu gehien ikasteko.

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • ataria@ataria.info • Tel.: 943-65 56 95


Argitaratzailea: Tolosaldeko Komunikazio Taldea SL
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Zuzendaria: Ainhoa Oartzabal.
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
P.E: ataria@ataria.info **Webgunea:** ataria.info
Papereko editorea: Eneritz Maiz.
Interneteko editorea: Imanol Garcia Landa.

Irratiko editorea: Jon Miranda. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818. tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.info
Villabona-Aiztondo: 687 410 022. villabona-aiztondo@ataria.info
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@ataria.info
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@ataria.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@ataria.info
Bezero arretra zerbitzua (zalantzak argitzeko...): **902 82 02 01**

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:

• Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarra, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, S.L.-ko kideak:



**Ataria-k
Bai
Euskarari**



Gipuzkoako Foru Aldundia

Kilometroetako atzeko lanaren testigantza iruditan



Urtebetean Kilometroak jaia antolatzen egindako lana ikusi ahal izango da dokumentalean. ATARIA

Kilometroak 2013 festaren urte osoko lana biltzen duen dokumnetala eskainiko dute Leidorren

JON MIRANDA TOLOSA

Kilometroak 2013 festaren *making-off*-a ikusteko aukera izango da larunbatean Tolosako Leidor aretoan. Urte osoan zehar Pablo Dendaluzet tolosarra aritu da Kilometroaren inguruko ekitaldietan irudiak biltzen. Beste zeregin bat ere izan du: jendeak borondatez egin duen lanaren testigantza jasotzea.

«Bilerak, obrak, entseguak... mila bitxikeria egon dira horietan eta bestelako ikuspegi hori jasotzen saiatu naiz erreportajeaz». Kilome-

troekin zerikusia izan duten ekitaldi guztietan izan da presente bideogile tolosarra eta jendeak, oro har, ondo hartu du kamara: «Hainbestetan ikusi naute ni neu, dekoratuaren parte ere izan naizela. Konfiantza giroa sortu da jendearen eta nire artean».

Urtean zehar izan den giro ona da Pablo Dendaluzek nabarmendu duena. «Lan gogorra izan da Andoainen testigua jaso genuenetik egin-dakoa. Saturazio uneak ere izan dira, baina beti gailendu da giro ona». Larunbatean, Leidorren eskainiko den dokumentalean hori islatzen saiatu dira.

Kontsumo propiorako balioko du prestatutako bideoak. Baina baliagarria izango zaie etorkizunean festa hau antolatzeko ardura dutenei:

«Lan honetan ikusten da gauzak nola planifikatu, antolatu, bideratu... Orioko ikastolakoei bideoa ikustea gomendatuko nieke».

40 minutu irauten duen lana ikusteko aukera izango da larunbatean 12:00etan hasita. Bertaratzen direnei DVD bat emango zaie opari. «Urte guztiko 15 bideo biltzen dituen bilduma izango da, ekitaldiz ekitaldi urteari errepasoa ematen diona», azaldu du Dendaluzek.

Sarrerak eskuragarri izango dira Orbela tabernan eta ikastolako idazkaritzan, helduentzako 3 eurotan eta umeentzako euro batean.

«Bideo hau ikusteko aukera bakarrenetakoa izango da, eta beraz, jendea animatu nahi dut bertara», argitu du bideogileak.

• **ataria@ataria.info**

Agenda

DEIALDIAK

GAUR

IBARRA. Subegi kultur elkartean Stop Etxe Kaleratzeaken hitzaldia, 19:00etan. Bertan Ibarako kasuaz hitz egingo dute, eta hitzaldiaren ondoren mahai inguru egingo dute.

AMASA-VILLABONA. Basarri sortu zeneko 100. urteurrenean, hainbat ekitaldi antolatu dituzte. 19:00etan Andoni Egaña eta Ana Zarina arituko dira gaiaren inguruan. 19:30ean, *Bat-bateko kantuen ehunaz* hitz egingo du Jon Sarasuak. 20:00etan, Ana Zarina Palafox mexikar trobadorea ariko da, *Estilos y formas estrófcas de la improvisación en los géneros de músicas tradicionales en México* gaiaren harira. 20:30ean, bertso saioa: Ana Zarina Palafox (Mexiko) eta Andoni Egañaren (Euskal Herria) eskutik.

BIDEGOIAN. Bidania-Goiatzeko Txinkorta eskolako Ernio guraso elkarteak LOMCeri buruzko hitzaldia antolatu du. Hau horrela izanik herritar guztiak edo nahi duen guztia gonbidatzen du bertan izatera. 20:30ean hasiko da Txinkorta eskolan bertan.

TOLOSA. *Tolosaldea Libre* dokumentalaren aurkezpena egingo dute, Tolosako kultur etxean, 19:00etan.

TOLOSA. Garazi Kamio idazlearen *Beste norbaiten zapatak* liburu izango da gaurko Galtzaundi

irakurle taldeak jorratuko duena. Tolosako kultur etxean, 19:30ean.

ZIZURKIL. Kirol Astearen ekitaldien barruan, Tai Chi ikastaro azkarra izango da Atxulondo kultur etxean, 19:30etik 20:30era.

AMASA-VILLABONA. Oinkari dantza taldeak, larunbatean, 18:00etan, Olaederra kiroldegian 'Itsasoaren emazteak' ikuskizuna eskainiko du. Sarrerak, www.kutxasarrerak.com helbidean edo Amasa kafetegian.

TOLOSA. Eguberri Umama diskoaren aurkezpena izango da larunbatean, Leidorren, 21:00etan. Sarre-rak 12 eurotan www.kutxasarrerak.net webgunean daude salgai.

ZINEMA

TOLOSA. Leidor zine aretoko zine forumean, *Solo Dios perdona* jatorrizko bertsoan ikusteko aukera izango da, 19:15ean eta 21:45ean.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Farmaziak

Gaur

Tolosa:

Egunekoa:

Olarreaga Aranburu, I.

Korreo kalea, 2.

Telefonoa: 943 67 01 28.

Gaukekoa:

Etxebeste Elozegi, J.M..

Gernikako Arboren lortaeziak, 3.

Telefonoa: 943 65 10 40.

Urtebetetzeak

Ezkontzak

Jaioberriak

...



AGURRAK

943-65 56 95

ataria@ataria.info

**Mauka
berria**

GAURKO ESKAINTZA

**Askarirako poltsa
alaia eta erabilgarria
zure haurrentzat**



KARPE DEAL S.L.
Palacio de la Prensa, Plaza de
Callao, 4 - 6.
MADRID 28013 - MADRID
Tel.: 902-09 13 71

Prezioa

13€

www.mauka.eu

**berria
taldea**